



AYUNTAMIENTO DE LA VILLA DE ERMUA
ERMUA HIRIKO UDALA

Sesiones de órganos de gobierno colegiados Acuerdo de Pleno

Kide anitzeko gobernu-organoen bilerak Udalbatzarraren erabakia

AYT/PLE/3/2016

ORG10I0AS

Código de validación/Balidazio kodea
0X6A3H2Y4C6P0Z4Q1D4N



Honako hau egin da aditzera emateko Udalbatzaren Osoko Bilkurak, 2016ko maiatzaren 03an egindako ordinaria bileran, korporazio-kideen legezko kopuruaren aho batez, besteak beste, jarraian idatzitako erabakia hartu zuela:

“Ermuko Udaleko talde sozialistak, indarrean dagoen araudiaren babesean, EBko estatu- eta gobernu-buruek Turkiarekin sinatu duten aurre-akordioa dela-eta, ondorengo mozioa aurkezten du, Udalbatzarrean eztabaidatu eta onesteko

Zioen azalpena

Joan den asteartean, martxoaren 8an, Europar Batasuneko estatu- eta gobernu-buruek lehen akordio bat hartu zuten Turkiatik Europar Batasunera iristen diren migratzaile guztiak –Siriako eta beste edozein nazionalitateko asilo-eskatzaileak barne- Turkiara itzultzeko programa bat ezartzeko, Europar Batasuneko estatuek Turkian jada finkatuta dauden beste horrenbeste iheslari kokatzen badituzte eta Turkiako Estatuaren aldeko beste neurri ekonomiko eta politiko batzuen truke.

Espainiako sozialistok uste dugu, akordio hori berrestekotan, Europar Batasunak ez lituzkeela asilo-eskubideen inguruko nazioarteko hitzarmenak errespetatuko eta, gainera, Europar Batasunaren desagite-prozesuaren hasiera izango litzatekeela. Sozialista espainiarrok ez dugu Europa hau ezagutzen eta pentsatzen dugu ezin dela interes-akordio bat sinatu Turkiarekin, iheslari eta

Se extiende para hacer constar que, por el Pleno de la Corporación en sesión ordinaria de fecha 03 de mayo de 2016, por mayoría unanimidad del número legal de miembros de la Corporación, entre otros, se adoptó el acuerdo que a continuación se transcribe:

“El Grupo Municipal Socialista en el Ayuntamiento de Ermua, al amparo del vigente Reglamento presenta para su debate y aprobación en Pleno la siguiente Moción en relación al preacuerdo suscrito por los jefes de Estado y el Gobierno de la UE con Turquía.

Exposición de motivos

El pasado martes 8 de marzo, las y los Jefes de Estado y de Gobierno de la Unión Europea alcanzaron un principio de acuerdo para poner en marcha un programa para deportar a Turquía a todos los migrantes - incluidas las personas demandantes de asilo sirios y de cualquier otra nacionalidad-, que lleguen a la Unión Europea a través de este país, a cambio de que los Estados de la Unión reubiquen a un número equivalente de personas refugiadas sirias asentadas ya en Turquía, y de otras medidas económicas y políticas a favor del Estado Turco.

Los y las socialistas españoles consideramos que, de confirmarse dicho pacto, la Unión Europea no estaría respetando los convenios internacionales sobre derecho internacional de asilo. Y que estaríamos asistiendo además al proceso de deconstrucción de la Unión Europea. Los y las socialistas españoles no reconocemos esta Europa, y creemos que no se puede hacer un acuerdo de intereses con Turquía

migratzaileen eskubideak trukean erabiliz; onartezina iruditzen zaigu.

PSE-EE (PSOE)koon iritziz, Bigarren Mundu Gerratik hona larriena gertatzen ari den krisialdi honetan, aurre-akordio moral-gabea sinatu dute Europar Batasuneko estatu- eta gobernu-buruek, eta zalantzazko legezkotasuna duena gainera, zeren komunikabideek jasotako informazioen bitartez jakin ahal izan ditugun baldintzak berrestekotan, asilo-eskubidea eta giza-eskubideen inguruko nazioarteko hainbat hitzarmen urratzen baititu argi eta garbi.

PSE-EE (PSOE)k gobernu kanpoko antolakundeen, lheslariantzako Nazio Batuen Goi Komisarioaren eta giza-eskubideen aldeko aktibisten eskaerekiko bere atxikipena adierazten du, Europar Batasunak itzulketa masiboak egiteko Turkiarekin sinatu duen aurre-akordioa salatu, arbuia eta erretiratzeko eskatuz. Gainera, iheslarien krisiari lehenbailehen aurre egiteko eskatzen dugu, giza-eskubideak defendatuz, igarobide humanitarioak sortuz, haiek errespetuz eta elkartasunez onartuz eta Europar Batasuneko estatu kideetan asiloa emanez.

Horregatik guztiagatik Ermuko Udal Talde Sozialistak ondorengo mozioa aurkeztu du Udalbatzarrek eztabaidatu eta onartzeko:

1. Ermuko Udaleko Udalbatzarrek bere gaitzespena agertzen du Europar Batasuneko estatu- eta gobernu-buruek Europar Batasunera iristen diren migratzaile guztiak - Siriako eta beste edozein nazionalitateko asilo-eskatzaileak barne - Turkiara itzultzea adostuz Turkiarekin sinatu

utilizando los derechos de las personas refugiadas y migrantes como moneda de cambio, porque lo consideramos inadmisibile.

Desde el PSE-EE (PSOE) consideramos que las y los Jefes de Estado y de Gobierno de la Unión Europea, ante la crisis más grave que vive desde la Segunda Guerra Mundial, han firmado un preacuerdo inmoral y de dudosa legalidad, que, de confirmarse los términos a los que hemos tenido acceso a través de las informaciones recogidas por los medios de comunicación, contraviene claramente el derecho de asilo y múltiples convenios internacionales sobre derechos humanos.

El PSE-EE (PSOE) muestra su adhesión a las peticiones de organizaciones no gubernamentales, Alto Comisionado de la ONU para las personas refugiadas. y activistas pro derechos humanos en la denuncia, rechazo y exigencia de retirada del preacuerdo de Unión Europea y Turquía para devoluciones masivas; así como la exigencia de abordar con urgencia la crisis de las personas refugiadas defendiendo los derechos humanos, creando pasillos humanitarios, acogiéndoles con respeto y solidaridad, y posibilitándoles el asilo entre los miembros de la Unión Europea.

Es por todo lo anterior que el GMS del Ayuntamiento de Ermua. presenta la siguiente Moción para su debate y aprobación en Pleno:

1.-El Pleno del Ayuntamiento de Ermua muestra su rechazo al acuerdo alcanzado entre las y los Jefes de Estado y de Gobierno de la Unión Europea con Turquía que contempla la devolución a Turquía de todos los migrantes -incluidas las personas demandantes de asilo sirios y de cualquier otra nacionalidad-, que lleguen a la



AYUNTAMIENTO DE LA VILLA DE ERMUA
ERMUA HIRIKO UDALA

Sesiones de órganos de gobierno colegiados Acuerdo de Pleno

Kide anitzeko gobernu-organoen bilerak Udalbatzarraren erabakia

AYT/PLE/3/2016

ORG10I0AS

Código de validación/Balidazio kodea

0X6A3H2Y4C6P0Z4Q1D4N



duten akordioaren aurrean.

Unión Europea.

2.- *Ermuko Udalbatzarrak Europar Batasunari eta bere kide diren estatuei exijitzen die, iheslariak bizi duten egoera larria dela-eta, presako erantzun humanitarioa eman diezaietela lehenbailehen, nazioarteko asilo-eskubidea eta giza-eskubideak errespetatuz. Zentzu horretan EBko gobernuari eta bere kide diren estatuei eskatzen zaie nazioarteko asilo-eskubidearen edo giza-eskubideen inguruan Europar Batasunak sinatutako nazioarteko hitzarmenak errespetatzen ez dituen akordio, itun, hitzarmen edo jardueraproposamen oro erretiratzeko. Ermuko Udalak Europar Batasunak eta bere kide diren estatuak pertsona horienganganako laguntzan erakusten ari diren berandutza salatzen du.*

3.- *Ermuko Udalak bat egiten du Europa osoko gizarte-antolakunde, sindikatu eta alderdi politiko askok bere egin duten "Pasaje Seguro" izeneko adierazpenarekin eta, ildo horretatik, EB eta bere kide diren estatuei eskatzen die igarobide humanitarioak sortzeko agin dezatela eta, errespetuz, Europar Batasuneko 28 estatu kideen artean pertsona horiei babesa ematea ahalbidetu dezatela.*

4. *Ermuko Udalak errefuxiatuak eta asilo eskatzaileak hartzeko udalaren berehalako eskuragarritasuna adierazten du eta Gurutze Gorriarekin sinatutako hitzarmenaren bidez Udal etxebizitza bat errefuxiatuen eskura jartzen du. Era berean aipatutako hitzarmen hori onartzen dugu..*

5.- *Hurrengo maiatzaren 9an, Europa Egunean, Udal honek Europar Batasunari Asilo-politika humanitarioago bat eskatzeko martxan jarritako ekimenetan parte hartuko*

2.-El Pleno del Ayuntamiento de Ermua exige a la Unión Europea y a los Estados miembros a dar una respuesta humanitaria urgente ante la grave, situación que viven las personas refugiadas, respetuosa con el derecho internacional de asilo y los derechos humanos. En este sentido, insta al Gobierno de la. Unión Europea y a los Estados miembros a la retirada. de cualquier acuerdo, pacto; convenio o 'propuesta de acción que no respete el derecho internacional de asilo o convenios internacionales sobre derechos humanos firmados por la Unión Europea. El Ayuntamiento de Ermua denuncia el retraso en la actuación sobre estas personas por parte de la UE y de los Estados miembros.

3.-El Pleno del Ayuntamiento de Ermua. se suma al Manifiesto "Pasaje Seguro" suscrito por multitud de organizaciones sociales, sindicatos y partidos políticos de toda. Europa y, en este sentido, insta a la UE y sus Estados miembros a que ordenen la creación de pasillos humanitarios, y que posibiliten, desde el respeto, el asilo de estas personas entre los 28 Estados miembros de la Unión Europea.

4.- El Ayuntamiento de Ermua expresa la disponibilidad inmediata de este municipio para acoger a los y las refugiadas y pone a su disposición una vivienda municipal mediante un convenio de colaboración con la Cruz Roja. Asimismo aprobamos dicho Convenio.

5.- El próximo 9 de mayo Día de Europa, este Ayuntamiento tomará parte en las iniciativas puestas en marcha para reclamar a la UE una política de Asilo más

du”.

humanitaria”.

BOZKETAREN EMAITZA	RESULTADO DE LA VOTACIÓN
<i>PSE-EE/PSOE: Aldekoak 5</i>	PSE-EE/PSOE: A favor 5
<i>EH Bildu: Aldekoak 3</i>	EH Bildu: A favor 3
<i>EAJ/PNV: Aldekoak 3</i>	EAJ/PNV: A favor 3
<i>Se puede Ermua Ahal da: Aldekoak 2</i>	Se puede Ermua Ahal da: A favor 2
<i>PP: Aldekoak 2</i>	PP: A favor 2
<i>Irabazi: Aldekoak 1</i>	Irabazi: A favor 1